

Larreaundi

Auzo plana

Plan de barrio

2023ko maiatza – Mayo de 2023

Aurkibidea

Indice

Zergatik auzo plana?.....	3
¿Porqué un plan de barrio?.....	3
Espazio publikoa.....	5
Espacio público.....	5
Mugikortasuna.....	11
Movilidad.....	11
Ekipamenduak.....	19
Equipamientos.....	19
Trantsizio energetikoa eta ingurugiroa.....	25
Transición energéticay medio ambiente.....	25
Komertzioa eta auzo ekonomia.....	31
Comercio y economía de barrio.....	31
Auzo elkarte eta komunitatea.....	35
Asociación de vecinas-os y comunidad.....	35

Zergatik auzo plana?

¿Porqué un plan de barrio?

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

Larraundi-Olaberría auzo elkartetik gure bizitokiak hobetzeko Auzo Plana garatu dugu. Hori auzoko bizilagunak engaiatu dituen parte hartze prozesu baten bidez egin dugu. Hemen irakurriko dituzun proposamenak lanketa komunitario horretan bildutakoak dira eta pauso hauen bidez landu dira:

- **Arloz-arloko asanbladak egin dira.** Espazio Publikoaren, Mugikortasunaren eta energia trantsizioaren gainekoak.
- **Proposamenak osatu eta kontrastatu dira:** On-line eta auzo elkartean bertan bete diren galdetegi erantzunez. Orotara XXX erantzun dira. Horrek zilegitasun nabaria ematen dio planari.

Auzo plana tresna garrantzitsua izango da hurrengo urteetan auzo elkartearentzako, udalari aldarrikapenak eta beharrak helarazteko eta auzotik ere eragiteko. **Labur esateko, gure auzoa hobetzeko agenda nagusia izango da.**

Desde la AVV Larraundi-Olaberría hemos desarrollado el Plan de Barrio. Para ello hemos promovido un proceso de participación barrial que a involucrado a cientos de personas en el barrio. Las propuestas que podrás ver a continuación son fruto de este proceso. Dos han sido los pasos principales que se han dado:

- **Asambleas temáticas:** *La mejora del espacio público, la movilidad o la transición energética se han tratado en asambleas abiertas y específicas.*
- **Completar la propuestas y contrastar:** *Se ha hecho mediante cuestionario on-line y presencial. Se han recogido XXX cuestionarios, lo cual da legitimidad al proceso.*

El Plan de Barrio va a ser una herramienta muy importante para el barrio de Larraundi-Olaberría AVV en los próximos años ya que reúne reivindicaciones y propuestas a presentar en el ayuntamiento así como iniciativas que podemos impulsar desde el barrio. En pocas palabras, es la agenda común que nos hemos dado para mejorar nuestro barrio.

Espazio publikoa

Espacio público

Larreandi auzo plana Plan de barrio de Larreandi

Espazio publikoa denon den topagunea da. Etxetik harago, auzokideekin topatzeko espazioa eta auzo-bizitza sustatzeko leku ezinbestekoa da.

Auzoan pertsona asko bizi bagara ere espazio publiko gabezia handia dugu. Ez dugu ganorazko plazarik. Ez dugu gune estalirik. Ez dugu errepideetatik babesturiko jolasgunerik. Tamalez gure auzoaren eremu publiko handiena kotxeei bideratua dago eta honek oinezkoentzako (haur zein heldu) arriskutsuak eta ez-erosoak diren lekuak sortzen ditu. Espazio publiko nahikorik gabe ezin dira auzo ekimenak antolatu eta zaila da auzo-bizitza indartzeko lekuak izatea.

Bestalde, gure auzoan badira lehentasunez konpondu beharreko espazio zehatzak ere: Gure alde zaharra den Iñigo de Loiolaren birgaitzea, Eguzkitza eremuaren hobetzea, etab.

El espacio público es el espacio en común que tenemos como vecinos y vecinas. Más allá de nuestro espacio doméstico, es el lugar imprescindible para el encuentro vecinal y de fomento de la vida comunitaria.

A pesar de que el barrio tiene muchos habitantes, tenemos una gran falta de espacios públicos. No tenemos plaza en condiciones ni tampoco espacios cubiertos. No tenemos espacios de juego resguardados de las carreteras. Por desgracia, la mayor parte del espacio público del barrio está dirigida a los coches y esto crea espacios poco seguros y amigables para peatones (tanto personas pequeñas como mayores). Sin espacios públicos en condiciones, es difícil organizar actividades y fomentar la vida de barrio.

Por otro lado, hay espacios concretos que hay que arreglar de forma prioritaria: La rehabilitación de Iñigo de Loiola, que es nuestro casco antiguo, la mejora de la zona de Eguzkitza, etc.

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

Iñigo de Loiola

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Iñigo de Loiola kalea egoera tamalgarrian dago: espaloi estuegiak, komertzioaren gain-behera, patioetara irisgarritasun arazoak...

Beharrezkoa da 3 ildotan artikulatuko den interbentzio integrala: oinezkoei lehentasuna ematea, bizilagun komunitateak dinamizatzea igogailuen instalazio eta fatxaden berritzerako lanak sustatzeko eta lokal komertzialak berreskuratzeko planteamenduak garatzea.

La calle Iñigo de Loiola se encuentra en un estado lamentable: aceras demasiado estrechas, pérdida del comercio, problemas de accesibilidad a los patios, etc.

Es necesaria una intervención integral que se articule en 3 líneas: priorizar a los peatones, dinamizar a las comunidades de vecinos para promover las obras de reforma de las instalaciones y fachadas de los ascensores y desarrollar planteamientos de recuperación de locales comerciales.

Larreundi auzo plana Plan de barrio de Larreaundi

Eguzkitzaldea

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Eguzkitzaldea kalea auzoaren erdigune bezala kontsideratu daiteke. Bizitza komertzial handia duen kalea da. Kalearen urbanizazioa zaharkituta dago eta berritze lanak behar ditu. Kalearen zabaltasunak espaloiak eta errepideak bestelako modu batean planteatzeko aukerak ematen ditu, oinezkoentzako espazioak irabaziz eta egoteko lekuak handituz komertzio eta tabernen inguruan.

Proposamen konkretuak:

- Fylab, Jasu taberna, Bazar-a eta ile-apaindegiaren aurrean dagoen espaloien zatia zabaldu. Horretarako, karga eremua mugitu autobus geldialdi zaharraren aurrera.
- Fabrica de Migas-en ondoan dagoen aparkalekuaren gaineko plazatxo atondu, adibidez haurrentzako parke bat sortuz eta Gain gainean parkearekin oinezkoentzako lotura sortu.
- Kale guztia oinezkoentzako lehentasuna duen eremu bezala arautu (Prudencio Arbidetik Olaberriako errotondaraino, abiadura 10km/ordukoa izatea).

Larreaurdi auzo plana Plan de barrio de Larreaurdi

- Mugikortasun azterketa zorrotz bat egin eta aukera hau aztertzea: Eguzkitza norabide bakarreko kale egitea eta horrekin espaloi eta plazak irabaztea auzoaren erdigunerako.

La calle Eguzkitzaldea puede considerarse el centro del barrio. Es una calle con mucha vida comercial. La urbanización de la calle está obsoleta y requiere de obras de renovación. La amplitud de la calle permite plantear aceras y carreteras de forma diferente, ganando espacios peatonales y ampliando los lugares de estancia en torno a comercios y bares.

Propuestas concretas:

- *Ensanchar el tramo de acera que hay delante de la peluquería, Fylab, el bar Jasu y el Bazar . Para ello, mover la zona de carga delante de la antigua parada de autobús.*
- *Habilitar la plazoleta sobre el aparcamiento situado junto a la Fábrica de Migas, por ejemplo creando un parque infantil y creando una conexión peatonal con el parque de Gain-Gainean.*
- *Regular toda la calle como zona de prioridad peatonal (desde Prudencio Arbide hasta la rotonda de Olaberria, velocidad de 10 km/h).*
- *Realizar un riguroso estudio de movilidad y estudiar la posibilidad de que Eguzkitza sea una calle en una dirección. Con ello se ganarían aceras (incluso) plazas para el centro del barrio.*

Eguzkitzaldea eta Virgen Milagrosa kaleen arteko plaza eta lorategiak

Calles y jardines de Eguzkitzaldea eta Virgen Milagrosa

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Gune honetako urbanizazioa ere zaharkituta dago. Aukera handiak ematen dituen espazioa da, oinezkoentzako delako ehuneko ehunean. Kotxeengandik babestua egoteak umeentzako eremu seguruago bilakatzen du eremu hau. Bertan dauden lorategiek erabilera gutxi dute txakurren kaka-leku direlako hein handi batean eta dagoen urbanizazio motak ez duelako gonbidatzen bertan sartzera.

Espazio hau berritzea planteatzen da, zuhaitzak mantenduz edo zuhaitz kopuruak handituz eta pertsonen erabiliko dituzten espazio berdeak diseinatuz. Hala nola parkeak, eserlekuak, etab.

La urbanización de este espacio también está obsoleta. Es un espacio con grandes posibilidades, porque es peatonal al cien por cien. El estar protegida de los coches hace de esta zona una zona más segura para personas mayores y pequeñas. Los jardines que allí se encuentran tienen poco uso porque son en gran parte "cagaderos" de perros y el tipo de urbanización existente no invita a entrar en ellos.

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

Se plantea renovar este espacio manteniendo árboles o aumentando el número de árboles y diseñando espacios verdes atractivos y que inviten a disfrutar de la zona.

Victoriano Juaristi kalea auzoko plaza bilakatu

Plaza en Victoriano Juaristi

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Victoriano Juaristi kalearen inguruan auzoko espazio garrantzitsuak daude, bereziki eskola eta futbol zelaia. Bi horien presentziak umeen jolas leku garrantzitsua izatea egiten du. Auzoko plaza sortzeko espazio ezin hobe izan daiteke. Bertan dauden aparkalekuak gutxituz gero espazio zabal bat irabazi liteke, eta auzo-plaza batek behar duen azpiegiturarekin hornitu. Hala nola estalki bat, eszenario txiki bat, parkea, bankuak, zuhaitz-gunea etab.

En los alrededores de la calle Victoriano Juaristi hay espacios importantes del barrio, especialmente la escuela y el campo de fútbol. La presencia de estos dos hace que sean un lugar de juego importante para personas jóvenes y lugar de encuentro de sus

Larreandi auzo plana Plan de barrio de Larreandi

cuidadoras. Puede ser un espacio ideal para crear la plaza del barrio. La disminución de los aparcamientos existentes podría ganar un espacio amplio y se podría dotar con la infraestructura que necesita una plaza de barrio. Como una cubierta, un pequeño escenario, parque, bancos, zona arbórea, etc.

Komun Publikoa

Baños Públicos

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Batez ere adineko pertsonak izan dira auzoan komun publikoa jartzearen beharra azpimarratu dutenak. Dena den denoi emango liguke zerbitzua eta zentzuzeko eskakizuna dirudi.

Han sido sobre todo las personas mayores las que han insistido en la necesidad de instalar un baño público en el barrio. Si bien es daría servicio a todas las personas y parece una petición razonable.

Eskola Patioen erabilpena baimendu eta erraztea

Utilización de los patios de los colegios

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Auzoan plazarik ez dugun bitartean gurean diren 2 eskolen patio eta azpiegiturak erabiltzeko zailtasunak (edo ezintasunak) ditugu. Horretarako behar diren gestio eta ardurak hartzea eskatzen diogu, batez ere udala eta Eusko Jaurlaritzari. Auzo Elkarteak ere bereak hartu beharko ditu.

Mientras que no disponemos de plazas en el barrio, tenemos patios e infraestructuras de 2 escuelas existentes que son difíciles (o imposibles) de utilizar. Para ello le pedimos que tome las gestiones y responsabilidades necesarias, sobre todo al ayuntamiento y al Gobierno Vasco. La Asociación de Vecinos también se hará cargo de sus responsabilidades.

Mugikortasuna

Movilidad

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

Gure auzoak mugikortasun arazo handi bat du eta tamalez ez da salbuespena Irungo auzoen artean. Langileok etxetik urrun egiten dugu lan gehienetan eta kotxez mugitzen gara asko. Horrenbestez, aparkatzearena arazo bihurtzen da batik bat etxera bueltatzen garen orduetan.

Hori horrela izanda ere, auzo-zentroa aparkaleku gehiagoz betetzea zaila eta ez desiragarria da. Izan ere auzoa-zentroa errepide eta aparkalekuz beteta dago jada. Horren ondorio zuzena da espaloi, oinezkoentzako bide, bide-gorri, plaza edo espazio seguruen gabezia.

Horri, aldaketa klimatikoaren eta energia fosilen gaineko auzia gehitu behar zaio: mugikortasun eredua aldatzeko dugun erronka nabaria da.

Arazoei aurre egin eta aukerak baliatzeko, mugikortasunaren eta bereziki aparkalekuen ber-antolamendu batera jo behar da. **Horretarako gakoak benetako aparkaleku disuasorioak eta dauden lekuen aprobetxamendu errealak dira.**

Nuestro barrio tiene un gran problema de movilidad y lamentablemente no es una excepción entre los barrios de Irun. Las personas trabajadoras lo hacemos lejos de casa en muchos casos y por ello nos movemos mucho en coche. Lo de aparcar se convierte en un problema sobre todo en las horas de vuelta a casa.

Aun siendo esto así, llenar el centro vecinal de más plazas de aparcamiento es ya físicamente difícil y no deseable. Y es que el centro vecinal ya está lleno de carreteras y aparcamientos. La consecuencia directa de ello es la falta de aceras, vías peatonales, ciclo-vías, plazas o espacios seguros.

A ello hay que añadir la cuestión del cambio climático y las energías fósiles: el reto que tenemos para cambiar el modelo de movilidad es evidente.

Para hacer frente a los problemas y aprovechar las oportunidades hay que recurrir a una reordenación de la movilidad y especialmente de los aparcamientos. Una clave de ello son los disuasorios de verdad y el aprovechamiento de los ya existentes.

TAO sistema

Sistema OTA

Erabat kontra – Totalmente en contra



Erabat ados – Totalmente de acuerdo

Gai honen inguruan burututako batzarran, gehiengo handi bat sistema hau ezartzearen agertu zen. Ez da zehaztu gune guztietan izan behar den edo ez ezta egon daitezken eremu eta baldintzak ere. Udalak sistemaren ezartzea aurreikusten du 2023-2024 urteetan.

En la asamblea celebrada en torno a este tema, una gran mayoría se manifestó en favor de la implantación de este sistema. No se especifica si debe o no existir en todos los espacios ni las zonas y condiciones posibles. El Ayuntamiento prevé la implantación del sistema en los años 2023-2024.

Txenpereneako garapen berrian Alturako aparkalekua

Aparcamiento en altura en nuevo desarrollo de Txenperenea

Erabat kontra – Totalmente en contra



Erabat ados – Totalmente de acuerdo

Hegoaldeko erronda iristen da gure auzora. **Proposamena da, bertan, auzoan sartu baino lehen (Euskal Herria hiribidetik) dimentsio handiko aparkalekua egitea aurreikusten den bizitoki garapenean.** Honela, kotxeek ez lukete beharrik gabe auzoa gurutzatuko eta espazioa irabaziko litzateke auzoan oinezko guneak eta plazak egiteko. **Aparkalekuaren behe-aldean biltegi komunitarioak ere jarri daitezke,** gurdiak, bizikletak eta karroak gortzeko.

La ronda sur llega a nuestro barrio. La propuesta es que antes de entrar en el barrio (desde la Avenida de Euskal Herria) se haga un aparcamiento de grandes dimensiones en el nuevo desarrollo urbanístico propuesto. Así, los coches no cruzarían innecesariamente el barrio y se ganaría espacio para hacer zonas peatonales y plazas en el barrio.

También se pueden instalar almacenes comunitarios en la parte baja del aparcamiento para guardar carritos, bicicletas y carros.

Alturako aparkalekua Perujaran gunean

Aparcamiento en altura en Perujaran

Larreaurdi auzo plana Plan de barrio de Larreaurdi

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Ezinbesteko bat da kotxeei aterabidea ematea eta espazioak irabaztea oinezkoentzako. **Aukera bat Perujaranen dagoen aparkalekuan, magalaren kontra altura aparkalekuak egitea da.** Bertakoentzako eta Larreaurdiko bizi-lagunentzako ere bai (9 minutura dagoena oinez).

Aparkalekuaren behealdean biltegi komunitarioak ere jarri daitezke, gurdiak eta karroak gortzeko.

*Es imprescindible dar salida a los coches y ganar espacios para los peatones. **Una opción es realizar aparcamientos de altura contra ladera en el aparcamiento de Perujaran (a 9 minutos a pie del centro de Larreaurdi).***

También se pueden instalar almacenes comunitarios en la parte baja del aparcamiento para guardar carritos, bicicletas y carros.

Berio kalean aparkalekua

Aparcamiento en calle Berio

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Aparkatzeko arazoa behin eta berriz nabarmentzen den arazoa da. Ezinbestekoa da mugikortasun ohitura berriak garatzea eta aldi berean, kotxeak aparkatzeko espazioak aurreikustea. Horiek auzoaren kanpoaldean egotea ezinbestekoa da.

Aukera bat Eguzkitza DBH-ko patioaren azpian aparkaleku bat eraikitzea da. Udalak eraiki beharko luke eta prezio sozialean alokatu.

Aukera honek baditu bere kontrakotasunak: ez dago kanpoaldean, eskola kotxez inguratzea litzake eta emisio gune bezala areagotuko litzake haurren patio ingurua.

El problema de aparcamiento es un problema que se pone de relieve una y otra vez. Es imprescindible desarrollar nuevos hábitos de movilidad y, al mismo tiempo, prever espacios para aparcar coches que se sitúen fuera del barrio.

Un opción sería hacerlo bajo el patio de la ESO Eguzkitza. Este aparcamiento lo debería construir el Ayuntamiento y alquilarlo a precio social.

Esta opción tiene sus contrariedades: no está en el exterior, podría rodear la escuela de coches y aumentar el entorno del patio infantil como punto de emisiones de gases.

San Juango parking-etik auzorako igarobidea

Paso libre por el aparcamiento de San Juan

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Irungo goikaldetik auzoarekin lotura ez da eroso (Paseo Colon-etik). Baina bada “parking” pasabide bat, lurraspikoa lotura errazten duena. Zentzuzkoena pasoa libre uztea da, auzokideen erosotasunerako eta Larreaurdira datozen kotxeek beste errepide batzuek ez betetzeko.

Desde lo alto de Irun la conexión con el barrio no es cómoda (desde el Paseo Colón). Pero hay una pasarela de parking que facilita la conexión subterránea. Lo razonable es dejar libre el paso, para comodidad de quienes tenemos que llegar al barrio y para que los coches que vienen al barrio no lo llenen otras carreteras.

Oinezkoentzako ibilbide ziurrak

Itinerarios seguros para peatones

Kotxeak aparkaleku berrietara mugitzearekin batera, oinezkoentzako ibilbide egokiak zehaztu behar dira eta hauek bereziki babestu. Kaleen oinezkotzeak baloratu beharko dira (Iñigo de Loiola bereziki) eta egun dauden zenbait tramo arriskutsuren aurrean esku-hartzeak egin (Eguzkitza kalea edo GI-3452a adibidez)

Los nuevos aparcamientos deben ir acompañada de la definición de itinerarios peatonales adecuados y su especial protección. Habrá que valorar las peatonalizaciones de las calles (especialmente Iñigo de Loiola) e intervenir ante algunos tramos peligrosos existentes (como la calle Eguzkitza o la GI-3452).

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

Leandro Soto eta Juan Alkain kaleak

Calles Leandro Soto y Juan Alkain

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Oinezkoentzako lehentasuna jartzea ezinbestekoa da. Izan ere ez dago espaloirik etxeetara iristeko eta beraz arrisku faktore handia da bertan bizi direnentzat.

La preferencia por el peatón es imprescindible. Y es que no hay aceras para llegar a las casas, por lo que es un gran factor de riesgo para los residentes.

Bidegorri sarea

Red de bidegorris

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo

Nafarroa hiribidea eta Kolon ibilbidetik bidegorria ezartzea planteatzen du Udalak mugikortasun planean. Hori dela eta, auzoa zentrora zuzenean lotzeko bidegorria

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

jartzea planteatzen da: Eguzkitzalde eta Prudencia Arbidetik. Era berean Eguzkitzalde kaletik Olaberriako landa gunerako lotura ziurra ere ezinbestekoa da.

El Ayuntamiento plantea en su plan de movilidad la implantación de la avenida de Navarra y el bidegorri por el paseo de Colón. Por ello, se plantea la instalación de un bidegorri que conecte el barrio directamente al centro: desde Eguzkitzalde y Prudencia Arbide. También es imprescindible la conexión segura desde la calle Eguzkitzalde al núcleo rural de Olaberria.

Olaberriarekin lotura segurua

Conexión segura con Olaberria

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Oinezko eta txirrindentzako bidea eraikitzea eskatzen da. Foru Aldundiaren kompetentzia da eta eskaerak egin izan zaizkio zentzu honetan. Olaberriako planaren baitan kokatzen da eta bertatik landu daiteke. Gure ustez ezinbestekoak diren neurriak dira:

Larreaurdi auzo plana Plan de barrio de Larreaurdi

- **Espaloia egitea gutxienez Urdiñegiko errekaraino** (hortik lotura baitago Kateara)
- **Bidegorria egitea gutxienez Urdiñegiko errekaraino** (hortik lotura baitago Kateara)
- **Kotxeen abiadura muga jaiste** (30km/h) eta auzunera bidean motelgailuak jartzea
- **Zebra bideak jartzea aldea batetik bestera pasa behar den puntuetan** (GI-3452). Era berean bizitokiak dauden tokietan errepide hau “kale” (eta ez travesia) bezala izendatzea baloratu.

Se pide la construcción de un vial peatonal y ciclista. Es competencia de la Diputación Foral y se le han realizado peticiones en este sentido. Se enmarca en el plan especial de Olaberria y se puede trabajar desde él. Consideramos medidas imprescindibles:

- ***Construcción de acera al menos hasta el arroyo de Urdiñegi** (de ahí la conexión con Katea)*
- ***Construcción de bidegorri al menos hasta el arroyo de Urdiñegi** (de ahí el enlace a Katea)*
- ***Bajar el límite de velocidad de los coches** (30km/h) e instalar amortiguadores en dirección al barrio*
- ***Colocación de pasos de cebra en los puntos de paso** (GI-3452). Valorar la declaración de esta carretera como calle (y no travesía) en los lugares en los que se ubican los alojamientos.*

Anbulategi eta ospitalarekin autobus lotura hobetu

Mejorar la conexión bus con ambulatorio y hospital

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Dunboako anbulategiko lotura zuzena planteatzen da. L4 linea moldatu eta L5 linea berria ezarri behar direnez, aldaketa hauetan hori aurreikustea eskatzen da.

Se plantea la conexión directa con el ambulatorio de Dunboa. Dado que es necesario adaptar la línea L4 e implantar la nueva línea L5, en estas modificaciones se solicita tener esto en cuenta.

Bizikletentzako aparkaleku publiko estali eta itxia

Aparcamiento público y seguro para bicicletas

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Zenbait etxebizitza blokek ez dute biltegi komunitariorik. Era berean ez dute espaziorik etxean bizikleta gordetzeko. **Honen aurrean, bizikleta aparkaleku seguru bat proposatzen da, Balzta-aren egoitza inguruan jarri daitekeena.**

Algunos bloques de viviendas carecen de almacén comunitario. Tampoco tienen espacio para guardar la bicicleta en casa. Frente a esto, se propone un aparcamiento seguro de bicicletas, que podría instalarse en la zona de la sede de Balzta.

Ekipamenduak

Equipamientos

Bizi kalitatea gertutasunari lotua dago. Gure bizitokitik gertu egunerokoa behar dugun gehiena badugu, ez dugu alferrikako desplazamendurik egin beharrik izango. Denbora gehiago izango dugu guretzat eta gutxiago kutsatuko dugu. Errepide gutxiago beharko dira eta espazio publiko gehiago izango dugu.

Auzoan bizitzeko aukera hori gertuko ekipamendu eta zerbitzuen existentziari lotua dago. Kirol-gunea, kultur guneak, dendak eta zerbitzuak gertu baditugu izango da posible auzoan bizi, bertan denbora gehiago pasa eta sare komunitarioa indartzea.

La calidad de vida está vinculada a la proximidad. Si cerca de nuestro hogar tenemos la mayoría de las cosas que necesitamos, no realizaremos desplazamientos innecesarios. Tendremos más tiempo para el disfrute y contaminaremos menos. Harán falta menos carreteras y ganaremos en espacio público.

Poder vivir en un barrio está vinculado al hecho de tener equipamientos y servicios de proximidad. Si tenemos espacios deportivos, culturales, tiendas y servicios, no tendremos que ir de aquí para allá y pasaremos más tiempo en el barrio.

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

Espazio sozio-kulturala

Espacio socio-cultural

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Larraundin ekipamendu gabezia agerikoa da, bereziki ekimen sozio-kulturalak egiteko espazioei dagokienean. Auzo elkartearen funtzioetako bat da auzo-bizitza dinamizatzen ekimenak proposatzea baina gaur egun oso mugatua dago espazio nahikorik ez duelako. Honegatik proposatzen da:

- **Aurre-ikusia dagoen espazio sozio-kulturala** (estazio elektrikoa zegoen tokian egiteko dagoena) behingoz egitea. Beti ere auzokideen ekarpenak aintzat hartuz honen diseinuan.
- **Hau egin bitartean Udalak bere ardura bete eta Auzo Elkartearen erabilerarako egongo den beste lokal bat alokatzea** (behin behinekoz).

Espazio hauek Auzo Elkarteak kudeatu arren, edozein auzotar edo auzo ekimenei irekia egotea proposatzen da.

La falta de equipamiento en Larraundi es evidente, especialmente en lo que se refiere a los espacios para la realización de iniciativas socio-culturales. Una de las

Larreundi auzo plana Plan de barrio de Larreaundi

funciones de la asociación de vecinos es proponer iniciativas para dinamizar la vida vecinal, pero hoy en día está muy limitada por la falta de espacio suficiente. Por lo que se propone:

- **Realizar de una vez el espacio socio-cultural previsto** (pendiente de ejecutar donde estaba la estación eléctrica). Siempre teniendo en cuenta las aportaciones de los vecinos en su diseño.
- **Alquilar (provisionalmente) un local para uso de la Asociación de Vecinos durante el tiempo que dure la realización de la misma.**

Aunque estos espacios sean gestionados por la Asociación de Vecinos, se propone que estén abiertos a cualquier iniciativa vecinal o vecinal.

Frontoiaren zahar-berritzea

Rehabilitación del frontón

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Gabezia askorekin batera, aprobe txatu gabeko eremuak ditu gure auzoak. Horien artean Frontoi eremua da. Frontoia bezalako ekipamendu bat dugu bertan eta baita

Larreaurdi auzo plana Plan de barrio de Larreaurdi

gure auzoan urriak diren berde-gune ireki bat ere. Haatik ez dago atondua beharko lukeen bezala eta honela erabilera urria du. Honi begira proposatzen da:

- Frontoia estaltzea: Kirolaz gain bertan bestelako jarduera sozio-kulturalak egiteko
- Berdegunea atontzea

Gabezia askorekin batera, aprobetxatu gabeko eremuak ditu gure auzoak. Horien artean Frontoia eremua da. Frontoia bezalako ekipamendu bat dugu bertan eta baita gure auzoan urriak diren berde-gune ireki bat ere. Haatik ez dago atondua beharko lukeen bezala eta honela erabilera urria du. Honi begira proposatzen da:

- *Frontoia estaltzea: Kirolaz gain bertan bestelako jarduera sozio-kulturalak egiteko*
- *Berdegunea atontzea*

Adinekoentzako zentro soziala

Centro social para mayores

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Gure auzoan adineko pertsona ugari dago eta ezinbestekotzat jotzen dugu hauen bizi-kalitatea mantentzeko begirako ekipamendu eta zerbitzuak egotea. Honela proposatzen da:

- Eraikiko den eraikin sozio-kulturalaren baitan adinekoentzako zentro soziala irekitzea (irunen dauden gisakoak). Espazioaz gain, jarduerak dinamizatuko dituen profesionala egotean ezinbestekoa da.

Espazio/zerbitzu honek asko lagunduko lieke auzoko adindu askori egunerokoa atseginagoa eginez.

En nuestro barrio hay muchas personas mayores y consideramos imprescindible que haya equipamientos y servicios para mantener la calidad de vida de estas personas.

Se propone:

- *Apertura de un centro social para personas mayores dentro del edificio socio-cultural a construir (similares a los existentes en Irun). Además del espacio, es imprescindible que haya una persona profesional que dinamice las actividades.*

Este espacio/servicio ayudaría mucho a muchos mayores del barrio haciendo más agradable el día a día.

Laguntza sozialetarako bulegoa

Oficina de Servicios Sociales

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Asko dira dauden behar sozio-ekonomikoak gure auzoan, langile auzo bat gara. Era berean laguntza publikoak ere ugariak dira baina askotan ez dira heltzen. Zenbaitetan behar duten horiek informazio nahikorik ez dutelako edota tramitaziorako laguntza behar dutelako. Honegatik astean behin informazio-laguntzarako leihatila egotea proposatzen da, auzokideek astean behin informazioa eta laguntza jasotzeko aukera izan dezaten.

Son muchas las necesidades socio-económicas que hay en nuestro barrio, somos un barrio obrero. También abundan las ayudas públicas, pero muchas veces no llegan a personas que en ocasiones lo necesitan por falta de información suficiente o por necesitar ayuda para su tramitación. Por este motivo se propone disponer de una ventanilla semanal de ayuda informativa para que el vecindario puedan recibir información y ayuda una vez a la semana.

Larreandi auzo plana Plan de barrio de Larreandi

Kaleko artea

Arte urbano

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Langile auzoa izanik honen edertasunari arreta gutxi jarri zitzaion diseinuan. Honen aurrean inguru urbanoa edertzeko ekimenekin jarraitzea proposatzen da (muralak eta horrelakoak egin baitira aurretik ere). Honetarako auzoan eta Irunen dauden sortzaileekin elkar-lana sustatzea proposatzen dugu, beren lanaz gure auzoa atsegina egiteko.

Siendo un barrio obrero, su belleza fue poco atendida en su diseño. Frente a esto se propone continuar con las iniciativas de embellecimiento del entorno urbano (ya que se han realizado murales y similares con anterioridad). Para ello proponemos fomentar la colaboración con los creadores que se encuentran en el barrio e Irun para hacer más agradable nuestro barrio con su trabajo

Auzo aurrekontu gehiago eta hobeak

Más y mejor presupuesto para los barrios

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Auzoei bideratzen den aurrekontua oso txikia da hauek egiten duten lanketarekin konparatzen bada. Horrez gain esleipen irizpideak ez dira egokiak eta hori gutxi balitz, askotan partidak jasoko ditugun edo ez jakin gabe egin behar ditugu ekimenak arrisku handiak hartuz.

Bestalde, oinarrizko azpiegitura alokatu behar izaten ditugu elkarte askok. Hala nola argiak, bozgoragailuak, komunak, etab. Horiek edozein ekimenerako oinarrizkoak dira eta **Udalari eskatzen diogu eros ditzan, ondoren behar duen auzo elkarteari lagatzeko.**

EL presupuesto que se dirige a los barrios es mínima si se compara con la labor que realizan estos. Además, los criterios de adjudicación no son adecuados y por si fuera poco, muchas veces tenemos que hacer iniciativas sin saber si vamos a recibir partidas y asumiendo riesgos importantes. Por otro lado, muchas asociaciones tenemos que alquilar una infraestructura básica. Como luces, altavoces, aseos, etc. Estos son básicos para cualquier iniciativa y pedimos al Ayuntamiento que los compre para su posterior cesión a la asociación de vecinos que lo necesite

Trantsizio energetikoa eta ingurugiroa
Transición energética y medio ambiente

Gure aroa aldaketa klimatikoaren eta krisi energetikoaren aroa da. Gure bizi-modua kolokan jartzen dituzten bi kondizio dira horiek. Izaera globaleko arazoak izan arren hauen aurreko soluzioek ekintza lokalak ere behar dituzte. Zentzu honetan ez dira gutxi auzoetatik egin daitezkeen gauzak. Dela aldaketa klimatikoaren aurrean egokitzapenak egiteko (tenperatura igoeren aurrean adibidez), dela jasangarritasuna lantzeko (kontsumo murrizteak, CO2 isuri murrizteak, energia berriztagarriak, eraginkortasuna hobetu, mugikortasun ereduak aldaketak, etab.)

El cambio climático y la crisis energética son dos de los condicionantes principales de nuestro tiempo. Aunque se trate de fenómenos globales, también requieren de soluciones locales. Por eso, hay muchas acciones que se pueden llevar a cabo: desde planteamientos para mitigar las consecuencias del cambio climático a medidas para la sostenibilidad (disminuir el consumo y la emisión de CO2, energías renovables, mejorar la eficiencia energética de los edificios, cambios en la movilidad, etc.).

Trantsizio energetikorako aholkularitza bulegoa

Oficina para la transición energética

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Aldaketa klimatikoa eta trantsizio energetikoa arazo beraren bi aurpegi dira. Eskuhartze globalak behar badira ere, auzoetatik badugu zer-eginik. Besteak beste: Efizientziak hobetu, kontsumoak murriztu, berriztagarrien alde egin,... etab. Luze bat.

Hauetan laguntzeko badira laguntza publiko ugari baina askotan ez dira bizilagunengana heltzen. Hau errazteko auzoan aholkularitza bulegoa jartzea proposatzen da, astean behineko maiztasunarekin informazio hauek jasotzeko gertuko espazio bat izateko.

El cambio climático y la transición energética son dos caras del mismo problema. A pesar de la necesidad de intervenciones globales, desde los barrios tenemos qué hacer. Entre otras cosas: Mejorar las eficiencias, reducir los consumos, apostar por las renovables, etc.

Hay ayudas públicas, pero muchas veces no llegan a las personas del barrio. Para facilitar esto se propone habilitar una oficina de asesoramiento en el barrio, con una periodicidad semanal para disponer de un espacio cercano donde recibir estas informaciones.

Komunitate energetikoaren sorrera

Creación de una comunidad energética

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Trantsizio energetikoa behar dugu, planetaren eta gure hobe-beharrez. Energia elektrikoari dagokionez auzoetatik egin dezakegun onena gutxiago kontsumitu eta bertan behar dugun energia ekoiztea da. Honetarako tresna dira Energia Komunitateak, zeinen bidez eguzki plakak eta bestelako proiektuak egin ahal diren aipatu helburuak lortzeko. Planeta izorratzen jarraitu gabe hobe bizitzeko. Egiteko honetan udalaren eta bizilagunen inplikazioak dira beharrezkoak.

Necesitamos la transición energética, por el planeta y por nuestra calidad de vida. Lo mejor que podemos hacer desde los barrios en cuanto a energía eléctrica es consumir menos y producir allí la energía que necesitamos. Para ello son herramientas las Comunidades Energéticas, a través de las cuales se pueden colocar placas solares,

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

distribuir bien la energía y otros proyectos para alcanzar dichos objetivos. En esta tarea es necesaria la colaboración público-comunitaria.

Zuhaitzak eta landaredia

Árboles y vegetación

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Gure auzoan hormigoia da nagusi, zementoa eta brea. Honen aurrean gure egunerokoa atseginago egin, ingurua edertu eta auzo jasangarriago baterako “bernaturalizazio” eremuak definitu eta esku-hartu behar ditugu. Hauek landaredia-zuhaitzez eta ur emariez beteriko espazioak dira, udara beroetan freskoak eta oxigeno ekoizleak diren eremuak. Horrelako arnas-gune txikiak, Estebenea erreka inguruan edota Larraundi Baserriaren eta Iñigo de Loiola arteko eremuan pentsatu beharko lirateke.

En nuestro barrio predomina el hormigón, el cemento y la brea. Ante esto podemos hacer más agradable nuestro día a día, embellecer el entorno y definir e intervenir los campos de renaturalización para un barrio más sostenible. Estos son espacios llenos de árboles vegetales y caudales de agua, zonas frescas en veranos calurosos y productoras de oxígeno. Este tipo de pequeñas zonas de refugio deberían pensarse en el entorno del arroyo Estebenea o en la zona comprendida entre el Caserío Larraundi e Iñigo de Loiola.

Larreandi auzo plana Plan de barrio de Larreaundi

Baratza komunitarioa

Huerta Comunitaria

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Baratza komunitarioak auzo-harremanak egin eta baratzagintzara hurbiltzen laguntzeko espazioak dira. Landetxako “Maraguri” baratza eredugarria da zentzu honetan, bertan belaunaldi ezberdineko pertsonak elkartzen dira eta beharrezkoa dugun elikadura ekoizpenean trebatzen dira. Larreaundi-Olaberria artean horrelako eremu bat martxan jartzea proposatzen da.

Las huertas comunitarias son espacios en los que se pueden cultivar relaciones vecinales y ayudar a acercarse a la horticultura. El jardín Maraguri de Landetxa es un ejemplo en este sentido, donde se juntan personas de diferentes generaciones y se ejercitan en la producción alimentaria que necesitamos. Entre Larreaundi-Olaberria se propone poner en marcha una zona de estas características.

Olaberriako nekazal banku publikoa eta nekazaritza eskola

Banco de tierras y agro-escuela en Olaberria

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Bizi dugun testuinguruak ekoizpena ber-lokalizatzerara behartzen gaitu. Batez ere estrategikoak diren eremuetan. Kasu honetan elikadura. Zentzu honetan Olaberria aukera paregabea izan daiteke lur banku publiko bat osatu eta nekazari berriak formatzeko. Ahal den neurrian Irunen kontsumitzen ditugun barazkiak bertan ekoiztera jo beharko genuke, gure elikagai segurtasuna indartuz eta baita tokiko jarduera ekonomikoa sustatuz.

El contexto en el que vivimos nos obliga a relocalizar la producción. Sobre todo en ámbitos estratégicos. En este caso la alimentación. En este sentido, Olaberria puede ser una gran oportunidad para formar un banco público de tierras y formar nuevos agricultores. Deberíamos tender en la medida de lo posible a producir allí las hortalizas que consumimos en Irun, reforzando nuestra seguridad alimentaria e incluso fomentando la actividad económica local.

Olaberriako aisi gunea

Espacio de ocio en Olaberria

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Bertan izan arren, dauden irisgarritasun eta azpiegitura baldintza kaxkarrak medio gozatu ezin daitekeen eremu naturala da Olaberria. Honen aurrean gauza asko egin badaitezke ere Auzo Planaren prozesuan honakoa identifikatu da:

- **Estebenea eta Danok Anai artean dagoen putzuaren saneamendua egitea eta inguruak egon-leku natural gisa egoteko egokitzea.** Honekin, bainu zona itzel bat sortuko genuke eta eremuari ere beste bizitza bat emango litzaioke.

Olaberria es un espacio natural que, a pesar de su cercanía, no se puede disfrutar por las precarias condiciones de accesibilidad e infraestructura existentes. Si bien son muchas las cosas que se pueden hacer ante esto, en el proceso del Plan Vecinal se ha identificado

- *Saneamiento del pozo existente entre Estebenea y Danok Anai y acondicionamiento de los alrededores como lugar natural de recreación. Con esto crearíamos una enorme zona de baño y también se daría otra vida a la zona.*

Komertzioa eta auzo ekonomia
Comercio y economía de barrio

Komertzioaren osasuna auzo baten bizitzaren neurgailua izan daiteke. Komertzioek eta ostalaritzak, kalean bizitza egotea bermatzen dute.

Harago joan gaitzke ere, komertzioek eta ostalaritzak kale seguruagoak sortzen ditu, konfiantza gehiago ematen baitu pertsonen batega den kaleak, hilik dagoen baino. Horrekin batera, auzoan ekimen ekonomikoa sustatzea gure beharrak modu kolektiboan eta gertutasunetik asetzea ekarri dezake.

La salud del comercio puede ser un indicador importante a la hora de medir la vida que hay en un barrio. Los comercios y la hostelería dan vida a las calles.

Además, crean espacios más seguros ya que un espacio con comercio y vida, nos genera mayor confianza que una calle “muerta”. Además, fomentar la actividad económica en los barrios puede generar espacios de oportunidad para satisfacer nuestras necesidades de una forma cercana y colectiva.

Lokal hutsak berreskuratzeko planteamendua

Recuperación de locales vacíos

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Hiri hobekuntzarako esku-hartzeei lotuta, beharrezkoa da hutsik dauden lokalen okupazioak errazteko programak martxan jartzea. **Besteak beste, birgaitze laguntzak edota alokairurako laguntzak.**

En relación con las intervenciones de mejora urbana, es necesario poner en marcha programas que faciliten las ocupaciones de locales vacíos. Entre ellas, las ayudas a la rehabilitación o al alquiler.

Auzoko komertziante eta ostalarien elkartea

Asociación de comercio-hostelería

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Auzoan bada oraindik masa komertziala. **Bertako langileak antolatuko balira, ekimen ugari egiteko aukera lukete bertako komertzioa dinamizatzeari begira.** Bestalde auzo agente garrantzitsua lirateke. Auzo elkartetik horren sorreran ahal duguna laguntzeko prest gaude.

En el barrio aún hay masa comercial. Si se organizara personal podrían realizar numerosas iniciativas de cara a dinamizar el comercio local. Por otra parte, serían un importante agente de barrio. Desde la asociación de vecinos estamos dispuestos a ayudar lo que podamos en su creación.

Auzoko komertzioa dinamizatzeko ekimena

Dinamización comercial

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Auzoko komertzioa ikusgarri egin eta bertan erostea sustatzeko, bi ekimen proposatu dira:

- **Komertzioa kalean:** maiztasun jakin batekin komertzioak “kalera” ateratzea, jai-giroan egingo den azoka bat antolatuz.
- **Katalogoa:** auzoan eros daitekeen guztiaren zerrenda norberak etxean izateko.

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

Con el fin de visibilizar y fomentar la compra en el comercio del barrio, se proponen dos iniciativas:

- **Comercio en la calle:** *hacer que los comercios salgan a la calle con cierta frecuencia, organizando una feria festiva.*
- **Catálogo:** *lista de todo lo que se puede comprar en el barrio para tenerlo en casa.*

Auzo elkartea eta komunitatea

Asociación de vecinas-os y comunidad

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

Edozein pertsonak erlazio sozialak eta konfiantzazko ingurune ziur bat behar du bizitzeko. Hori plano desberdinetan eman daiteke: oso gertuko pertsonekin baina baita bizilagun, komertzianta eta auzoarekin oro har.

Besteak beste, auzo elkartearen eta auzotarren ekimena, auzo komunitatea sortzera bideratuta egon behar da, auzoko bizilagunen arteko elkar zaintza lortzera.

Todas las personas necesitan relaciones sociales y un entorno de confianza para vivir. Esto se puede dar en planos diferentes: con personas muy próximas pero también con el vecindario, red comunitaria, comerciantes y a nivel de barrio en general.

La actividad la Asociación Vecinal y el impulso vecinal tiene que ir dirigido a fortalecer estas relaciones y a crear una comunidad de barrio fomentando el cuidado mutuo entre las personas que lo habitamos.

Larreandi auzo plana Plan de barrio de Larreaundi

Auzo nortasuna

Identidad de barrio

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Auzo komunitateko parte sentitzeko, auzo erreferentziak indartu behar ditugu. Hau da, “zer da larreaunditar” egiten gaituena, zeintzuk dira gure auzoko gertakari eta ikonoak?. Horiek landuz, harremanak eginez, ikono berriak sortuz sareak indartzen dira. Aukerak ezberdinak dira:

- **Auzoaren historia berreskuratu:** Eta modu ezberdinetan sozializatu (dokumentala, kale txangoak, argazkiak...)
- **Olaberriko landa ihauteriak,** gaubeltza berreskuratu
- **Auzoko pertsonaiak berreskuratu**
- **Auzoko memoria landu** egun bizi direnekin eta auzoaren sorrera ikusi zutenekin

Honetarako baliabideak behar dira, hau egitea lan asko baita eta materiala behar baita. Honela hauek lantzeko baliabideak eskatzen dizkiogu udalari.

Para sentirnos parte de la comunidad vecinal necesitamos reforzar las referencias vecinales. Es decir, ¿qué es lo que nos hace ser de larrenditarras, cuáles son los hechos e iconos de nuestro barrio?. Trabajándolos, entablando relaciones, creando nuevos iconos se refuerzan las redes. Las opciones son diferentes:

- **Recuperar la historia del barrio:** Y socializar de diferentes maneras (documental, excursiones callejeras, fotos...)
- **Carnavales rurales de Olaberria,** recuperación del gaubeltza
- **Recuperar personajes del barrio**
- **Trabajar la memoria del barrio** con quienes viven en la actualidad y vieron el nacimiento del barrio

Para esto hacen falta recursos, porque hacer esto es mucho trabajo y hace falta material. Así, solicitamos al ayuntamiento recursos para trabajarlos.

Bolondres sareak

Red de voluntarias-os

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Udalak bolondres sare bat antolatzen du. Gaur egun bolondres horiek ez dute aukerarik auzo elkarteetan ekarpena egiteko. Auzo Elkarteak auzo hobekuntzarako

Larreaundi auzo plana Plan de barrio de Larreaundi

erakundeak dira, interes orokorraren alde egiten dutenak lan. Honela bolondresei gure auzo elkartean lan egiteko aukera ematea nahi dugu.

El Ayuntamiento organiza una red de personas voluntarias. Hoy en día estas no tienen la oportunidad de aportar en las asociaciones vecinales. Las Asociaciones vecinales son entidades de mejora vecinal que trabajan por el interés general. Así queremos que los voluntarios puedan trabajar en nuestras asociaciones.

Auzo Elkartea indartzeko dinamikak

Reforzar la AVV

Erabat kontra – Totalmente en contra

Erabat ados – Totalmente de acuerdo



Gauza asko egin ditzakegu auzo elkartetik eguneroko bizitza hobetzeko: ekimenak, eskakizunak, jaiak, kultur ekimenak, behar dutenei laguntza eskatu... hori dena baldin eta ondo antolatzen bagara eta baliabideak lortzen baditugu. Honenbestez 2 ildo hauek indartu behar dira:

- Auzo elkarteko bazkidetzak handitu
- Jendearen parte hartzea sustatu elkartean

Desde la asociación vecinal podemos hacer muchas cosas para mejorar la vida cotidiana: iniciativas, exigencias, fiestas, iniciativas culturales, pedir ayuda a los que lo necesitan... todo ello siempre que nos organizemos bien y logremos recursos. Por tanto, hay que reforzar las 2 líneas:

- *Aumentar el número de personas socias en la asociación*
- *Fomentar la participación en la asociación*

Auzo mahaia: Udalarekin inter-lokuzio bakarra

Mesa de barrio: Interlocución ordenada con el Ayuntamiento

Udalarekin interlokuzio bakarra izatea ezinbestekoa da, ezin dugu ibili gaiaren arabera udaleko pasiloetan galtzen. Honela, auzo mahaia osatzea proposatzen dugu eta bertatik modu ordenatu eta koordinatuan landuko dira auzoari dagozkion auziak.

Tener una interlocución única con el Ayuntamiento es imprescindible, no podemos andar perdiéndonos por los pasillos municipales en función de la temática. Así,

Larraundi auzo plana Plan de barrio de Larraundi

proponemos la constitución de una mesa vecinal desde la que se abordarán de forma ordenada y coordinada los asuntos que conciernen al barrio.